

# PRENTSA-DOSIERRA

# PRO TO TIPOAK

## Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala Bienal Internacional de Nuevas Formas Artísticas International Biennial of New Artistic Forms

Ayşe Erkmen /TR/ – Iratxe Jaio + Klaas Van Gorkum /EH/NL/  
 Fermín Jiménez Landa /ES/ – Gilles Jobin /CH/  
 Ainhoa Lekerika /EH/ – Laida Lertxundi /EH/  
 Teatro Ojo /MX/ – Orangcosong /JP/  
 Susana Velasco /ES/ – Ramón Williams /CU/USA/

2023

	30	31	1	2	3	/
MAIATZA	EKAINA					
MAYO	JUNIO					
MAY	JUNE					

Comisariado:  
 Rosa Casado – Mainer López – Stéphane Noël – Fernando Pérez



## Prototipoak Bilbao. Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala

*Prototipoak* Azkuna Zentroaren *Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala* da. Begirada desberdinak dituzten eta jatorri desberdinetakoak diren sortzaileen topaketa bat, zeintzuek errealitatearen alderdiak zalantzan jartzen dituzten eta ahalegina egiten duten praktika artistikotik bertan eragiteko aukerak zabaltzeko. Gaur egungo formatatik abiatzen dira, beren kode eta sorkuntza-denborekin, aldatzen diren agertoki eta formatuetan eta era askotako lengoaietan, eta esperientzia eraldatzaileak proposatzen dizkiote publikoari, oroimenean irauteko modukoak.

*Prototipoak* bienalak hitzaren adiera batetik zabaltzen du bere ekintza- eta pentsamendu-esparrua: "prototype", erreferentzia egiten baitio zerbaiten lehen bertsio bati, gailu baten aurretiazko gauzatzeari, zeinetatik beste forma batzuk eratorriko diren. Horrela, espazioak egiteko modu bat sustatzen du, ziurgabetasunetik, jakin-minetik eta etengabeko zalantzatik abiatuta, beste mundu batzuen aukera zabalduz. "Zer", "noiz" eta "zergatik" galderen ondoan, prototipo horiek definitzen dute kultura "nola" eta "non" gertatzen den. Proiektu bakoitzerako kokaleku egokia, euskarrien, formatuen eta espazioen dibertsitatea eta egokitasuna.

*Prototipoak* bi urtez behin izaten da, hasieran gonbit egiten baitzaie artistei sorkuntza-prozesu bat abiarazteko, eta horren garapenak eta etorkizuneko oihartzunek harremanak, ezagutzak, oroitzapenak, bizipenak sortzen baititu... Denbora horretan, zentroko taldeak parte hartzen du eta inplikatzeko da ideien garapenean, proiektuen bizitza aldakorrean, "Prototipoa" esplorazio komuna izan dadin, sorkuntzatik, kudeaketatik, ekoizpenetik eta komunikaziotik abiatuta. Ekitaldia maiatzaren amaieran izaten da, ospakizun moduan, orduan gauzatzen baita prozesu horien guztien emaitza eta partekatzen baitira publikoen komunitateekin.

2023ko edizio honetan, *Prototipoak* bienalak begiratzen die Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon gertatzen denaren esperientziak sortzen dituen emozio sozialei, pentsamenduei eta sentimenduei, eta pertsonen bizitzan eragiteko duen moduari. Era berean, apustua da zentroko espazioa, hiri-espazioa eta landa-aldea, naturala eta artifiziala, biologikoa eta robotikoa, "bir-naturalizatzearen" alde, hausnarketa berri bat eginez kulturaren eta gizartearen iraganari eta etorkizunari buruz, dibertso, berezi eta espezifiko denak duen positiboari buruz, artearen eta gizartearen, artisten eta publikoen komunitateen arteko zirikatuan.

2023ko Prototipoak proiektutatik abiatzen da. Proiektu horiek arte bisualak, arte eszenikoak, zinema, ikus-entzunezkoak eta hitza (site specific-a, performancea, dantza, instalazioak, espazio publikoko esku-hartzeak eta arkitektura iragankorrak) zeharkatzen dituzte, eta proposamenak egiten dituzte errealitateaz beste modu batez hausnartzeko eta ikusteko: prozesu gisa, praktika gisa eta esperientzia gisa.

Proiektu artistiko berriak dira, Alhóndigako espaziorako eta haren testuingururako berriaz sortuak, edo lehendik dagoen testuinguru arkitektonikoa eta soziala eraldatzea planteatzen dutenak. Nabarmentzekoak dira arte komunitarioaren eta sorkuntza kolektiboaren inguruko proposamenak, gonbit egiten baitute hitz egitera eta entzutera komunitate baten parte garelako gogorarazteko, denboraren joana ospatzera, egungo une historiko eta ekologikoaz jabetzera, naturarekin eta oroitzapenekin berriz konektatzera, solas egiteko modu berriak saiatzera, dramaturgia berriak esperimentatzera eta arte eszenikoetan teknologia berriak aplikatzera... Azken batean, bizitzaren eta artearen arteko eragin-trukerako proposamenak dira, oso urrun dauden iruditerietatik ekarriak, eta nazioarteko erreferentziazko artisten bidez sorkuntza garaikideari begira daudenak.

*Prototipoak*, zentzu askotan, zentroaren kultura-proposamenaren paradigma da. Programazioak gaur egungo lengoaiak sustatzea eta zabaltzea du ardatz, eta topaguneak irekitzen ditu artisten eta ikusleen komunitateen artean, esperientzia paregabeak sortzeko. Horrela, Azkuna Zentroaren kultura-ondarea sortzen da. Ondare

hori ez dago bilduma batean jasota, museoetan bezala, baizik eta egunero sortzen diren programen, liburuen, ekintzen, proiektzioen, jaialdien eta erakusketen erregistro gisa eratuta.

**Komisarioak: Rosa Casado, Maider López, Stéphane Noël eta Fernando Pérez**

## ARTISTAK ETA PROIEKTUAK

### **AYŞE ERKMEN (Istanbul, 1949)**

Ayşe Erkmen artista bisuala Turkiako sortzaile garrantzitsuenetako bat da, eta Berlin eta Istanbul artean lan egiten du. Leku jakin baterako egiten ditu lanak, eguneroko bizitzako gertaerak edo behaketak txertatuz. Erkmenen lanaren ardatza ez da forma berriak sortzea, baizik eta lehendik zeuden baldintza eta testuinguru arkitektoniko eta sozialak eraldatzea.

Bere lana nazioarteko erakusketa askotan egon da ikusgai, hala nola Münster Sculpture Project-en, 1997an eta 2017an. 2011n, Turkia ordezkatu zuen Veneziako Arte Bienalaren 54. edizioan, Plan B lanarekin. Istanbulgo Bienalaren hiru ediziotan parte hartu du, baita Shangai, Berlin, Sharjah eta Zeelanda Berriko Scape bienaletan ere. Bere lana toki hauetan erakutsi da, besteak beste: Berlingo Akademie der Künste-n 2016an, Londresko The Curve Barbican Centre-n 2013an eta Ganteko SMAKen 2015ean.

#### ***Myself on site***

#### **Arte bisualak/Parte-hartzea/Site specific**

Ayşe Erkmenen site specific-ak Azkuna Zentroko Atariko sarrera nagusian dauden zutabeetako batean esku hartzen du; zutabeak 16 metroko tamaina du eta burdinazkoa da. Zinta berde bat zutabearen inguruan ehuntzen da, huntza baten gisa, lurretik sabairaino. Oihala artistaren izenarekin sinatuta dago, behin eta berriz errepikatuta, logo edo marka gisa. Autorretratu forma ematen dio obrari, egiletza, erreprodukzioa, identitatea eta identifikazioa jorratuz.

Hala, Myself on Site "eskultura-selfie" bihurtzen da, eta Ataria esku-hartutako zutabe bakarraren idulki. Azkuna Zentroa leku kultural espezifikoa den bezala, artistaren izenak —mezu bakar gisa— artearekiko jarrera espezifikoa ematen du aditzera, eta haren errepikapen amaigabe eta kontaezinak entropia moduko bat ezartzen du.

Maiatzak 30 eta 31, eta ekainak 1, 2 eta 3  
9:00-21:00. Interbentzioa. Kulturen Atrioan

### **FERMÍN JIMÉNEZ LANDA (Iruñea, 1979)**

Fermín Jiménez Landaren lanak ekintzak, bideoak, argazkiak, objektuak, instalazioak eta esku-hartze publikoak hartzen ditu barne. Abiaburu dituen egoera eta narrazioetan, desitxuratu egiten da errealitaterik enpirikoenaren eta pasadizorik gertagaitzenaren arteko muga.

Bere ekintzetan, gutxieneko esku-hartzea egiten du errealitatean, eta eguneroko erritoen azterketa ludikoa egiten du. Aldi bateko egoera txikiak dira, eta askotan objektu, arrasto eta edozein motatako dokumentaziotan trinkotzen dira. Egiten dituen lan batzuetan ukiezina dena ukigarri bilakatzen da, edo partikularretik unibertsalera igarotzen da, eta alderantziz. Asko interesatzen zaio partekatua dena, zurrumurrua, umorea, abiatzea ahalik eta aukerarik zabalenetik. Oso gutxi interesatzen zaizkio erabat amaituta dauden eta oso birtuosoak diren objektuak.

Toki hauetan erakutsi ditu lanak: Manifesta 11 Bienala, Zapopan-eko MAZ museoak, Artium, MUSAC, CA2M eta Oteiza, Künstlerhaus Bethanien, Centro Botín, La Casa Encendida eta Moisés Pérez de Albéniz, Travesía Cuatro, Nogueras Blanchard eta Angels Barcelona galeriak. Lan egin du Consonni, Hagako 1646 eta Helsinkiko HIAPEkin.

#### ***Un helado sabor sendero***

#### **Arte bisualak/ Erakusketa/Ekintza**

Fermin Jiménez Landak *Un helado sabor sendero* sortu du Prototipoak jardunaldietarako, silfioaren eta mihiluaren arteko harremanaren inguruan eratutako proiektua.

Urrea bezain baliotsua zen silfio-landarea; antzinate klasikoaren hasieratik gordetzen zen, ongailu, lurrin, afrodisiako eta sendagai gisa. Landarea duela bi mila urte desagertu zen arrastorik utzi gabe, eta, hala, betiko galdu zen lurrina. Gizateriak kontzienteki desagerrarazi duen historia idatziaren lehen espeziea da.

Botanika garaikidean, hainbat landare ikertzen dira silfioa zein izan daitekeen jakiteko, landareak bizirik iraun dezakeelako eta mundu guztiaren aurrean ezkutatuta egon daitekeelako. Proiektu artistiko honek ardatz bat du bereziki, basa-mihilua, sasikoa, belar txarra, Gilles Clementek "hirugarren paisaia" deitu zuen horretan bizi dena: bide ertzak, gizakiaren erabakiezintasunaren eta zoriaren ondoriozko leku mugakide horiek, giza ordenamendutik kanpo daudenak.

Sukaldaritza, botanikako ekintza entropikoa, iraungitzeak eta galerak, nekazaritza, egintza kolektiboa, hedonismoa eta beste gai batzuk uztartuz, *Un helado sabor sendero* lanak mihiluaren familiako hainbat landareren laboreak aurkezten ditu, silfio gisa proposatutakoak: Bilboko kioskoetan banatzen den basa-mihiluaren zaporeko izozki bat. Bestalde, bidezidor baten ondoan zein harkaitz artean ezkutatuta landareak aurkitzeko Gaztela-Mantxa eta Bizkaia artean egindako ibilbideetako batzuk erakusten ditu.

Proiektu honetan, Fermín Jiménez Landak beste lotura batzuk sortzen dituen lan-material gisa planteatzen du izozkia. Abegi oneko material eskultorikoa, baina iragankorra, ezdeusa. Lurrin honen galerarekin hunkituta, izozkia proposatzen du istorio baten igorle gisa, zaporearen eta plazeraren bidez.

Maiatzak 30 eta 31, eta ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Erakusketa. Lantegia. BAT Espazioan

Asteazkena, maiatzak 31  
19:30. Talk: Fermín Jiménez Landa & Fernando Pérez  
BAT Espazioa  
20:00. *Un helado sabor sendero* piezaren inaugurazioa. BAT Espazioan

### **AINHOA LEKERIKA (Lezama, 1998)**

Prototipoak bienalean, Ainhoa Lekerikak esku-hartze kolektibo bat aktibatuko du zentroko erakusketa-gunean. Hormari musu emanez, karmin gorri marraztuko dira aretoko paretak. Intimidade-harreman batetik abiatuta, pertsona-talde bat elkartzen da, eta sentsibilitate aktibo batetik musu ematen dio lekuari. Horrek sortzen dituen formen iruditeriak erantzun egin nahi die irrika jakin batzuei, marrazkia oroitzapenekin eta ezagutzarekin konektatzeko modu gisa ulertuta.

Bere lana hainbat erakusketa kolektibotan egon da ikusgai: *Un mundo sin cualidades* (CarrerasMugica galeria, 2020) *Final Fantasy* (AIRE Galeria, 2021); *Xena* (Balmaseda, 2021) eta *Mala xena nunca muere* (Arrasate, 2021), *Harriak* programa, *Eremuak*; *Erantzuna* (Okela Sormen Lantegia, 2022) eta *Hamahiru* (Tabakalera, 2022), *Eremuak*.

### ***Deep wishes, promises and hopes***

### **Arte bisualak/Parte-hartzeak/Erakusketa /Ekintza**

Prototipoak bienalean, Ainhoa Lekerikak esku-hartze kolektibo bat aktibatuko du zentroko erakusketa-gunean. Hormari musu emanez, karmin gorri marraztuko dira aretoko paretak.

Intimidade-harreman batetik abiatuta, pertsona-talde bat elkartzen da, eta sentsibilitate aktibo batetik musu ematen dio lekuari. Horrek sortzen dituen formen iruditeriak erantzun egin nahi die irrika jakin batzuei, marrazkia oroitzapenekin eta ezagutzarekin konektatzeko modu gisa ulertuta.

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Erakusketa. Erakusketa Aretuan

Asteartea, maiatzak 30

19:30. Talk: Ainhoa Lekerika & Maider López. Erakusketa Aretoan

### **LAIDA LERTXUNDI (Bilbo, 1981)**

Laida Lertxundik "Landscape Plus" izeneko metodologiatik abiatuta egiten du lan ('paisaia eta zerbait gehiago'). Talde-ariketak eta behaketa-argazkilaritza musikarekin, ekintzekin eta ausazko ekitaldiekin uztartzeko modu bat da, lurraren eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituena, plazer- eta esperientzia-gune gisa.

Erakusketa hauek egin ditu, besteak beste: Artspace Aotearoa New Zealand (2023), High Line Art, New York (2023), Whitney Biennial, New York, (2012), Hammer Museum (2016), LIAF Biennial (2013), Biennale de Lyon (2013), Frieze Projects New York (2014) eta MoMA, New York (2022, 2017), eta Tate Modern, Londres (2016). Bere obraren banakako erakusketa hauek egin ditu: La Taller, Bilbo (2022), NoguerasBlanchard (2021), Matadero, Madril (2019), LUX, Londres (2018), Tramway, Glasgow (2018), FuturDome, Milan (2019), fluent Santander (2017), Tabakalera, Donostia (2017), Azkuna Zentroa, Bilbo, (2014), Vdrome, Londres (2014) eta Marta Cervera, (2013). Bere filmak jaialdi askotan aurkeztu dira, hala nola Locarno, New York Film Festival, International Film Festival Rotterdam, London Film Festival, BFI, TIFF Toronto, Gijón, Donostia eta Edinburgh-en.

2001etik 2011ra, zinema- eta bideo-komisario gisa lan egin zuen Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroan. 2020an Gure Artea saria jaso zuen. Azkuna Zentroko artista AZkidea izan da 2021etik 2023ra. Lyongo École Nationale Supérieure des Beaux-Arts-eko irakaslea da.

### **8 Topaketa**

### **Zinema eta ikus-entzunezkoak /Instalazioak**

Laida Lertxundik Azkuna Zentroaren artista AZkide gisa garatutako *8 Topaketa* proiektua erakusten du, eskola iragankor bat eta 16 mm-ko proiektu zinematografiko kolaboratibo bat. Pieza hau Euskal Herriko mendietan egin zuen, artista gonbidatuek zuzendutako partitura ireki batzuetatik abiatuta. Talde txikietan gauzatu zen 2021 eta 2022 bitartean.

Gidoi edo storyboard batetik abiatu gabe, eszenek forma hartu zuten artistak eta kolaboratzaileek interpretatzaile eta kamerarentzako jarraibideak interpretatu ahala. Horiek Euskal Herriko paisaia dramatiko eta bereziei erantzuteko landu zituzten. Partiturak berariaz diseinatu zituzten inprobisazioa, ingurunearen behaketa sakona, taldeko arazoek konponbidea eta desfamiliarizazioa sustatzeko.

Laida Lertxundik zinema jorratzen du narratiba edo fantasia sortzeko bitarteko gisa, eta, orobat, bere sorkuntzaren inpresio gisa eta ingurune zehatz bateko harreman material kontingenteen multzo gisa. Horrela, filmaketaren espazioa helburu gisa kokatzen du berez, lana bultzatzen duen sistema ekologiko modura, eta hori oso nabarmena da ateratzen diren irudietan.

Fitxa artistikoa:

Artistak: Alex Alonso Díaz, Sirah Badiola, Ren Ebel, Usoa Fullaondo, Kiera Greene, Ketuta Alexi Meskhisvili, Clara Schulmann.

Parte-hartzaileak: Rocío Agudo, Andrea Aguilera, Miguel Alejos, Carla Andrade, Leyre Arraiza, Tania Arriaga, Rebecca Jane Arthur, Miren Barrena, Judit Cerqueiro, Xabier Despaigne, Hanah Lur Ebel Lertxundi, Maite Choya, Marion Cruza, Fran Fraca, Andrea Franco Batiévsky, Ines García, Susana Gonzalez Colls, Ana Gonzalez Telleria, Helena Goñi, Keira Greene, Tom Haines, Gala Knorr, Julia Martos, Rita Morais, Ander Muñoz, Olatz Ovejero, Federico Paladino, Javier Perez Curiel, Oksana Pohrebennyk, Bárbara Rodriguez, Leo Rodriguez Haines, Alba Rua, Iker Ruíz de Apodaka, Alex Salaberria, Marta Sanchez, Maider Santos, Jimmy Schaus, Beatriz Setién, Diego Sologuren, Amaia Urra, Milagros Valerio, Maia Villot.

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3

11:00-20:00

Proiektzioa. Erakusketa Aretoan

### **TEATRO OJO (Mexiko Hiria, 2002)**

Gogoetarako eta ekoizpen artistikorako kolektiboa, 2002an Mexiko Hirian eratua. Gauza hautemanezinak ditu arretagune nagusia. Agian, bere ustez, antzerkirik premiazkoena berehalakoan hautematen ez dena delako, hala ere, gure bizitzak zeharkatzen dituelako, eta eragina duelako, hala gure aldarlean, pertzepzioan eta portaeran, nola bestearekin ditugun harremanetan. Agian horregatik, artista-talde honen antzezlanak beti abiatzen da besteekin (eta bestearekin) izandako lankidetzak batetik.

Kalean edo antzokian, eraikin publiko zahar batean edo autobus batean, telefono baten bidez edo pantaila batetik aterata, bere antzezlanak zentzua hartzen du deitu den inoren indar horrek eszenan parte hartzen duen unean bertan. Dela erabiltzen ez den zinema batean bizi den uso-kolonia bat (Canto de palomas, 2017), dela indarkeriak inguratutako nazio baten ahotsak (Deus Ex Machina, 2018) edo findegi monumental bateko errutina (Volver negro, 2020), Teatro Ojok bere oholak altxatuko du gutxieneko hori ager dadin.

### ***Deus Ex Machina***

### **Arte Biziak /Performancea/Instalazioa**

*Deus Ex Machina* eszena- eta arte-proiektu parte-hartzaileak herrialde oso batek hitz egiteko dituen modu askotarikoak eta bereziak entzun nahi ditu. Azkuna Zentroko erakusketa-aretoan jarritako call center batetik, Euskadin eta Espainiako estatuko beste leku batzuetan bizi diren ahots ugari bilduko dira.

Era askotako galderak dituen gidoi ireki baten bidez egingo da dei bakoitza, berariaz bideratuta elkarrizketa ustekabeak sortzera, lurraldeko inkontziente historikoan arakatzeko, eta hitza erabiliko da pertsonen beren mundua nola irudikatzen duten eta nolako aldarlea duten irudikatuzko.

Galderen helburua da telefonoa hartu eta kultura-zentro batetik deitzen dien ahots batekin topo egiten duten pertsonen subkontzientea piztea. Deia entzun eta galderen gidioa erantzuten dutenen ahotsak denbora errealean entzungo dira espazio eszenikoaren barruan.

*Deus Ex Machina* lanak ahotsen erakusketa bat osatuko du, antzerkiaren eta instalazioaren artean dabilen proposamen artistiko batean.

Fitxa artistikoak:

Teatro Ojo-ren proiektua: Héctor Bourges, Karla Rodríguez, Patricio Villarreal, Laura Furlan, Fernanda Villegas eta Alonso Arrieta.

Jesús Pérez Caballero eta Rodrigo Parriniren lankidetzarekin.

Esker onak: José A. Sánchez; Beatriz Cavia, Miren Jaio eta Leire Vergara (Bulegoa z/b); Maite Martínez de Arenaza eta Tania Arriaga (La Taller-Erredakzioa); Kevin Ramírez, Ximena Ortiz eta Isaac Márquez (Unibertsitate Autonomo Metropolitarrak, Xochimilco)

Call Center-eko talde artistikoa: Dantzertiko ikasleak

Honekin lankidetzan eginda: Lanalden

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3

11:00-20:00. Instalazioa. Erakusketa Aretoan

17:00-20:00. Performancea. Erakusketa Aretoan

Larunbata, ekainak 3

20:00. Talk: Teatro ojo & Rosa Casado. Erakusketa Aretoan



**RAMÓN WILLIAMS (Habana, 1969)**

Nazioartean ibilbide luzea egin duen artista bisuala. Bere argazki- eta bideo-arteko lanak erakusketa ugaritan izan dira, eta Europako eta Estatu Batuetako museoetako bildumen parte dira. 1992 eta 1994 artean idatzitako *A dónde* eleberria da bere lehen argitalpen osoa. 1996tik Estatu Batuetan bizi da.

**Museum Traces**

**Arte bisualak/Argazkiak/ Erakusketa**

*Museum Traces* argazki-serieren bidez, Ramón Williams artistak museo batean obrak muntatzeko eta desmuntatzeko trantzea erakusten du, proiektuek uzten dituzten aztarnak azalduz, normalean ikusleek ezin ikus ditzaketenak. Argazkiak, kaxa zuriko paretak hartu arren, ez dira inongo erakusketatakoak. Horrela, ikusgai jartzen dituen paretak tirokatuta daudela ematen du eta leihoek gonbit egiten dute artearen espazio itxitik irtetera. Agerian uzten ditu jada ez dauden eta etortzeko dauden obren neurriak. Piezen kontakizunak idazten ditu paretaren gainean, egiazkoak bezain fikziozkoak, iraunkorrak bezain iragankorrak.

Artista gisa museo horietako areto batzuetan egon ondoren, serie honetan Williamsek beste ertzetik aurre egiteko ardura hartzen du, langile gisa, eta erakusketak izan aurretik eta ondoren lan horiek hain argiak ez diren aztarnak uzten dituzten lekuak erakusten ditu.

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Erakusketa. Erakusketa Aretoan

**IRATXE JAIKO (Markina-Xemein, 1976) & KLAAS VAN GORKUM (Delf, Holanda, 1975)**

Iratxe Jaiok eta Klaas van Gorkumek bikote artistikoa osatzen dute 2001etik. Gaur egun Rotterdamen (Holanda) bizi eta lan egiten dute. Beren praktika arkeologia esperimentalarekin konpara daiteke. Dauden objektuen eta dokumentuen esanahi soziala aztertzen dute, horiek bereganatuz eta beste testuinguru batean erreproduzitzen. Beren diziplinaren aukeretatik harantz doan interesa dute, eta, hala, sarritan lankidetzan aritzen dira beste esparru batzuetako pertsonekin, hala nola arkeologiakoekin, soziologiakoekin edo aktibismoekin. Horrela, artearen eta gizartearen arteko harremana aztertzen dute, eta baloratu ahal dute, batetik, arteak hainbat gai sozialatan bete dezakeen papera, eta, bestetik, gai horiek artearen esanahian duten eragina eta artearen berezko balioa.

Banakako eta taldeko erakusketa ugaritan parte hartu dute hainbat espaziotan, hala nola Gasteizko Artium Museoan; ADN Platform Bartzelonan; FRAC-Akitania Bordelen; MUSAC Leonen; Tabakalera Donostian; Kunsthalle Exnergasse Vienan; Fabra i Coats Bartzelonan; De Appel Amsterdamen; eta Konsthall C Stockholmen. 2021-2022an *Paperezko Inperio baten Atlas*a proiektua garatu dute Donostiako San Telmo Museoan, *Bikoitza Museoa* programaren barruan.

**Arqueología en Reverso - 43°15'35" N 2°56'14.9" W**

**Arte bisualak/ Erakusketa/Ekintza**

Etorkizunari mezu bat bidaltzea. Iratxe Jaiok eta Klaas van Gorkumek gonbit egiten diote jendeari zeremonian parte hartzera, kaxa beltz bat jartzeko datozen 1.000 urteetan ireki gabe egongo den lekuan. Kaxa gaur egungo une historiko eta ekologikoaren testigantza da. Hermetikoki zigitatuta dago, eta objektuen aukeraketa bat du, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao eta UPV/EHuren Arte eta Kultura Garaikideko Praktikaren eta Teoriaren Berezko Masterreko ikasleekin bildua.

Master honetan Iratxe Jaiok + Klaas van Gorkumek emandako mintegian, parte-hartzaileek aukera izan dute hainbat gai lantzeko: kolapso ekologikoa, orainaren herentzia eta kultura-jardunean oso epe luzeko ikuspegia aplikatzeak dituen ondorioak: Zer esan nahi du objektu artistiko bat egoteak bizitza garaikidearen berehalako arretaren ekonomiaren esparrutik harantz? Zer gertatzen da inork ez badu ikusten edo esperimendatzen, ezkutatuta dagoelako? Zer gertatzen da bakarrik aurkitzen badute etorkizun urrun batean gure kode kultural gutxi edo bat ere ez duten izakiek?

Kaxa beltza galdera horiei buruzko gogoetaren emaitza da. Parte-hartzaileek prozesuaren urrats bakoitza dokumentatu, eta edukiaren inbentario zehatza sortu dute, eta bermatu dute haren existentziaren erregistro bat geratuko dela desagertu aurretik. Baina, batez ere, kaxa beltz hau mezu bat da, 3023an oraindik baten batek jasoko duelako esperantzarekin igorria.

#### FITXA ARTISTIKOA

Iratxe Jaioren eta Klaas van Gorkumen proiektua Azkuna Zentroko – Alhóndiga Bilbao eta UPV/EHUren Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako Berezko Masterreko ikasleekin lankidetzan egina.

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Materialen erakusketa. Erakusketa Aretoan

Ostirala, ekainak 2  
18:00. Talk: Iratxe Jaio / Klaas Van Gorkum & Fernando Pérez. Erakusketa Aretoan  
18:30. Ekintza. Kutxa beltzaren kokalekuaren ekitaldia. Kulturen Atrioan

#### SUSANA VELASCO (Madril)

Arkitekturaren eta ekintzaren arteko posizio lizun batetik abiatuta, Susana Velascoren aztergaia dira arkitekturak har ditzakeen erdiko lekuak, gorputzen eta bizi diren paisaiaren arteko lotura gisa, *Cámara Solar del Santo Isidro*, *Pequeño Museo Comunal* eta Bordeleko *La nave del tiempo* proiektuetan, besteak beste. Eskala eta forma beti arrotz batzuetatik abiatuta, bere lanek materialtasuna eman nahi diote bizi garen mundu komunaren poetikari, antzinako komunalen lekukoa hartuz, eta aukera zabalduz objektologiekin, gainerako izakiekin eta zapaltzen dugun lurrarekin beste era batera lotzeko.

Luddotek (2004-2011) proiektuarekin hasi zuen bere ibilbidea. Proiektu lizun horretan, haurtzaroko potentziak aztertu zituen —arlo eszenikoaren eta politikoaren artean—, Rafael Sánchez-Mateosekin batera. Gaur egun, harekin lanean jarraitzen du Operaciones Cunctatio-n, formatu dibertsifikatuko proiektuetan, hala nola arestiko *Lo vivo, lo pueblo, lo jondo: Geopsiquias del Albaicín* proiektuan. Bere bakarkako eta taldeko lanak leku eta arte-zentro askotan erakutsi eta aintzatetsi dira, hala nola MUSACen, Kasseleko documenta-n eta MNCARSen.

#### Tierra de nadie

#### Arte bisualak/Bitartekotza-arkitektura/Instalazioa/Pasealekua

Susana Velascok proposatzen duen esku-hartzeak bi leku lotzen ditu: Azkuna Zentroko terraza eta hiria inguratzen duten mendietan dauden auzoak. Auzo horiek, Masustegi kasu, Bilbo industrializazio betean zegoenean izandako hazkunde informalaren ondorio dira.

Mendietako migratzaile haiek, "inoren lurrekoak", nortasun lausoko jendea ziren —ez erabat Euskal Herrikoak, ezta galiziarrek ere—, eta beren auzoaren autoeraikuntza obra kolektibo bihurtu zuten.

Herrixketako lur lauso eta ireki horrek 70eko hamarkadaren erdialdean erabiltzen ez zen Alondegi baten irudian du kontraplanoa eta haren teilatua ezohiko paisaia bat bezala azaleratzen zaigu: oihartzun arraro baten antzera, inguruko mendi haietan autoantolatzen ziren formekin durundi egiten duen lur-zati basati bat.

Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3  
9:00-21:00. Instalazioa. Terrazan

Osteguna, ekainak 1  
19:00. Monte Carmelo Ibilbidea – Masustegi  
Ostirala, ekainak 2  
19:00. Monte Carmelo Ibilbidea – Masustegi  
Larunbata, ekainak 3

11:30. Monte Carmelo Ibilbidea – Masustegi

### **GILLES JOBIN (Suitza, 1964)**

Zuzendari artistikoa, ekoizlea, koreografoa eta dantzaria, Gilles Jobin erreferentea da Errealitate Hedatuan (XR) eta dantza garaikidean. Bere ekoizpenak mundu osoan barrena aurkeztu dira 1995az geroztik. Pieza berritzaileak sortu zituen —*A+B=X* (1997), *Braindance* (1999), *The Moebius Strip* (2001) eta *Under Construction* (2002)—, lengoia koreografiko batean oinarrituta, ezarritako esparru estetikoetatik kanpo, arte bisualetan eta zuzeneko arteetan sartu-irtenak eginez.

Gaur egun, Gilles Jobin konpainia denbora errealeko urrutiko ikuskizunetarako teknologia eta berrikuntzara bideratuta dago, mugimendua atzemateko eta sortzeko ekipatuta dagoen Genevako estudiotik. Bere ekoizpen berrienen artean, nabarmentzekoak dira *Magic Window* (AR, 2019) eta *Dance Trail* (AR, 2020), errealitate areagotuko bi dantza-pieza; eta *La Comédie Virtuelle*, errealitate birtualeko erabiltzaile anitzeko pieza. 2021ean *Cosmogony* sortu zuen, konpainiaren estudioetan zuzeneko mugimenduan harrapatu eta denbora errealean transmititutako dantza-pieza. Bere sorkuntzak Sundance Film Festivalean (2018 eta 2020), Veneziako Zinema Bienalean (2018 eta 2020), Biennale de la danse de Lyon-en (2018) eta New Yorkeko BAM eta Basileako Haus For Elektronische Kunst / HEK eta beste museo batzuetan aurkeztu dira.

### ***Cosmogony* Dantza/Errealitate birtuala/Urrutiko performance digitala denbora errealean**

Munduko biran, Gilles Jobin konpainiak *Cosmogony* aurkeztuko du Bilbon. Performance digitala Genevan egingo da. Hor, hiru dantzariren zuzeneko mugimendua zuzenean harrapatuko da konpainiaren estudioetan, eta denbora errealean transmitituko da Azkuna Zentroko Auditorioan. Atzemandako mugimenduak "bit" digitaletan zatituko dira, eta berehala bidaliko dira ziberespaziotik. Avatar gisa erakutsiko dira Bilbon, konpainiaren estudiotik ehunka kilometrora dagoen publiko baten aurrean.

Dantzarien gorputzak eta haien avatarrak partikulak bezala korapilatuko dira egoera kuantiko batean, eta, aldi berean, distantzian egingo dituzten ekintzak eta haien mugimenduak berehala teleportatuko dira mundu osotik. Dantzariek beren gorputzen txotxongilo gisa jokatu dute, beren avatarrak denbora errealean piztuz eta esekita dagoen mundu baten kosmogonia osatuz. Espazio kosmiko batean edo hiri birtual baten bihotzean, mugimenduan dauden dantzarien gorputzak fisikaren legeetatik askatuko dira, Suitzako TarPond doom rock taldearen burrunba analogikoaren soinuarekin, publikoari errealitate harantz doan bidaia hipnotizatzaile bat eskainiz.

*Cosmogony* 2021ean estreinatu zen Singapurreko SIFA jaialdian, 2022ko Sundanceko Jaialdirako hautatu zuten, eta teknologiaren erabilera berritzaileenaren saria irabazi zuen 2022ko Miami FilmGate Jaialdian. Dagoeneko Genevatik zuzenean proiektatu da bidaiatu gabe 3 kontinenteko 10 hiritan eta 8 herrialdetan.

Fitxa artistikoa:

Director Gilles Jobin

Dancers Susana PanadésDíaz, Rudi van der Merwe, JozsefTrefeli

Lead Dance Artist Susana Panadés Díaz

Lead 3D Artist Tristan Siodlak

Lead Technologist Camilo de Martino

Lead Technical Artist Pierre-Igor Berthet

Motion Capture Pedro Ribot

Mocap cameras Qualisys

Music Tar Pond

Music Arrangement Marky Edelmann, Tommy Vetterli

Mastering Dan Suter / Echo Chamber

AdministrationGonzagueBochud

Production Cie Gilles Jobin

Osteguna, ekainak 1

20:00. Denbora errealeko urrutiko performance digitala. Auditorioan

20:30. Talk: Gilles Jobin & Stéphane Noël. Auditorioan

### **ORANGCOSONG - CHIKARA FUJIWARA (JAPÓN, 1977) ETA MINORI SUMIYOSHIYAMA (JAPONIA, 1986)**

Chikara Fujiwarak (Japonia, 1977) eta Minori Sumiyoshiyamak (Japonia, 1986) Orangcosong kolektibo artistikoa sortu zuten 2019an, Malaysierako *orang* (pertsona) eta *kosong* (hutsa) hitzak oinarri hartuta. Kolektibok gehienbat Asian garatu du bere praktika, eta arte eszenikoetako esperientzian oinarritzen da, beste diziplina artistiko batzuekin harremanetan jarrita.

#### **Hitsudankai - From now/here, Silence**

#### **Arte biziak/Performancea/Tailerra**

Japoniako kolektibo artistikoak *Hitsudankai - From now/here, Silence* tailerra/performancea proposatzen du. Bertan parte hartzen dutenek idazketaren bidez baizik ezin dute elkarren artean komunikatu, erabat isilik egon behar dute.

Horrela, elkarrizketa-formatu berri bat proposatzen dute: idatzizko komunikazioa da elkarrizketa egiteko bidea. Erabateko isiltasuneko egoera berezi horretan, pertsonen presentzia beren gorputz, hitz, irudi eta paperean egindako marrazkien bidez berresten da. Pertsona batek bakarrik idatz dezake; bitartean, gainerakoek begiratu, entzun eta itxaron behar dute, eta lasaitasuneko denbora espazioan metatzen da. Formatu sinplea eduki arren, batzuetan (ia beti) une dramatikoak izaten dira.

Asteazknea, maiatzak 31

17:30-18:30. Tailerra. Mediatekan. TK 202

18:30. Talk: orangcosong & Stéphane Noël. Mediateka. TK 202

Osteguna, ekainak 1

17:30-20:30. Tailerra. Kulturen Atrioan

#### **IT'S MY BIRTHDAY!**

#### **Performancea/Jaia**

Prototipoak *It's my birthday!* ekintzarekin amaituko da aurten, jaialdian urteak betetzen dituztenak batuz egingo den jai kolektiboarekin. Horregatik, gonbit egiten diegu maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean jai diren pertsonen ospakizun honetan parte hartzera.

Ekitaldi performatibo bat baino gehiago, *It's my birthday!* aukera bat da gehiago erreparatzeko ditugun loturei, eta gutxiago bereizten gaituenari. Pertsona heterogeneoen talde bat konektatuko du, eta horiek a priori ez dute batere loturarik izango haien artean, jaiotegunaz aparte. Urtebetetzea sekula egin ez duten moduan gogoratzeko gaua izango da.

Jaia ekainaren 3an (larunbatean) izango da, 20:30ean, Azkuna Zentroko terrazan. Hamar pertsona gonbidatu ditzakezu, lagun zein senide izan, jaiaren egoteko nahi duzuna.

Edozein urtebetetze-festatan bezala, janaria, edaria, tarta eta musika izango ditugu, baita mikrofono bat ere omenduentzat.

Larunbata, ekainak 3

20:30. It's my Birthday! Terrazan

**Meetings ACUTE. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology**

Prototipoak programaren esparruan, Azkuna Zentroak ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology proiektuaren partner gisa hartzen dituen egoitzetako lehena egiten da. ACuTe, sortzen ari diren teknologien bidez arte eszenikoen ekoizpenari buruzko berrikuntza-proiektu europarra da, lankidetzakulturalerako eta gaitasunen garapenerako modu berriak ezartzen dituena.

Ikerketaren lehen fase honetan, dramaturgia, eszenografia eta teknologia emergenteen arloko profesionalak hainbat topaketa partekatuko dituzte teknika digitala eszenan aplikatzeari buruz, soinutik, arte bisualetatik, gorputzetik, hitzetik edo ingeniartzatik abiatuta.

## PROGRAMA

### **Maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1, 2 eta 3**

**Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum** *Arqueología en Reverso - 43°15'35" N 2°56'14.9" W*

Erakusketa

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

**Ainhoa Lekerika** *Deep wishes, promises and hopes*

Erakusketa

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du ekainaren 11ra arte

**Laida Lertxundi** *8 Topaketa*

Proiektzioa

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du ekainaren 11ra arte

**Teatro Ojo** *Deus Ex Machina*

Performancea:

17:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Instalazioa:

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du ekainaren 11ra arte

**Ramón Williams** *Museum Traces*

Esposizioa

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Instalazioa:

11:00-20:00. Erakusketa Aretoan

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du ekainaren 11ra arte

**Ayse Erkmen** *Myself on site*

Parte-hartzea

11:00-20:00. Kulturen Atria

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du irailaren 3ra arte

**Fermín Jiménez Landa** *Un helado sabor sendero*

Erakusketa

11:00-20:00. Lantegia / BAT Espazioa

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du irailaren 3ra arte

**Susana Velasco** *Tierra de nadie*

Instalazioa

9:00-21:00. Terraza

Prototipoak programaren ondoren jarraitzen du urriaren 1era arte

### **Asteartea, maiatzak 30**

18:00 - 20:00 egindako proiektuen inguruko inaugurazio ibilbidea artistekin eta curator-ekin. Bisita librea eta/edo bisita gidatua (18:00)

19:30. Talk: Ainhoa Lekerika & Mainer López. Erakusketa Aretoan

20:00. Networking

**Asteazkena, maiatzak 31**

12:30. Profesionalen topaketa

18:00. Orangcosong. Chikara Fujiwara & Minori Sumiyoshiyama

*Hitsudankai-From now/here, Silence*. Taller/Performance. Mediateka

19:30. Talk: Fermín Jiménez Landa (*Un helado sabor sendero*) & Fernando Pérez. BAT Espazioa

20:00. Aurkezpena - Inaugurazioa *Un helado sabor sendero*. BAT Espazioa

**Osteguna, ekainak 1**

18:00. Orangcosong. Chikara Fujiwara & Minori Sumiyoshiyama

*Hitsudankai-From now/here, Silence*. Tailer/Performancea. Mediateka

19:00. Susana Velasco (*Tierra de nadie*). Monte Caramelo ibilbidea - Masustegi

20:00. CIE. Gilles Jobin *Cosmogony*. Denbora errealeko ibilbide digitala. Auditorioan

20:30. Talk: Gilles Jobin & Stéphane Noël. Auditorioan

**Ostirala, ekainak 2**

12:30 Profesionalen topaketa

18:00. Talk: Iratxe Jaio / Klaas Van Gorkum (*Arqueología en Reverso - 43°15'35"N 2°56'14.9"W*) & Fernando Pérez. Erakusketa Aretoan

18:30. Ekintza – Kutxa beltzaren kokalekuaren ekitaldia (*Arqueología en Reverso - 43°15'35"N 2°56'14.9"W*). Kulturen Ataria

19:00 Susana Velasco (*Tierra de nadie*). Monte Caramelo ibilbidea – Masustegi

**Larunbata, ekainak 3**

12:00. Susana Velasco (*Tierra de nadie*). Monte Caramelo ibilbidea - Masustegi

20:00 Talk: Teatro Ojo (*Deus Ex Machina*) & Rosa Casado. Erakusketa Aretoan

20:30 *It's my Birthday*. Terrazan.